



**MENDIALDEKO AZOKA IBILTARIAK AZOKEN EGUTEGI ERAKARGARRIA AUR-
KEZTEN DU 2024rako, AURTEN 5. EDIZIOA BETETZEN DUEN EKIMEN HAU ABE-
RASTU ETA INDARTUKO DUTEN JARDUERA TEMATIKOEKIN.**

***Ohi bezala, Araitz bailarak hasiera emango dio edizio berri honi, datorren
apirilaren 21ean, igandearekin, goizeko 11:00etatik aurrera, eta artzain tradizioa
izango da Arribeko plazan egindo den azokaren ardatza. Aurtan, berrikuntza
gisa, Betelu udalerria gehituko zaio azoka ibiltariari.***

Mendialdeko Azoka Ibiltariak, 2020an sortu zenetik izan duen ibilbidea eta filosofia mantenduz, bosgarren edizioari ekingo dio, Mendialdea eskualdeko baserritar eta artisauek egindako sasoiko produktuak bultzatu, ikusarazi eta saltzeko helburuarekin. Sustapeneko eta zuzeneko salmentako kanala da, modu jasangarri eta arduratsuan ekoitzitako tokiko produkturik onenak eskaintzeko aukera ematen duena, eta eskualdeko lehengaien erabilera bereziki baloratzen duena. Ekimen horrek, gainera, ingurumenarekiko, paisaiarekiko, ekonomiarekiko eta kulturarekiko kontsumo arduratsua eta kontzientea sustatzen du landa-eremu horietan.

Izan ere, merkatu horiei bizia ematen dieten postuak kultura baten eta nekazaritza eta abeltzaintzako praktika batzuen isla dira. Horiek bizimodua definitzen dute, eta gaur egun heredatzen dugun lurraldea marrazten dute; eta, besteak beste, produktu-sorta askotarikoa eta goxoa eskaintzen digute: sasoiko fruituak, gazta, eztia, taloa, hestebeteak, haragia, pateak, ogia, arrautzak, esnekiak, etab. Horrez gain, eskulangintzako hainbat postu ere eskaintzen dira, bai zurezkoak, zeramikazkoak, metalezkoak, ehungintzakoak, etab.

2024rako, erakundearen apustua pixka bat harago doa, nekazaritzako elikagaien eta artisauen postuen merkatuei laguntzeko saiakeran, azoka bakoitza erakargarriagoa egiten duten jarduerak eta ekitaldiekin osatuz. Publiko berria erakartzeko eta bisitarien egonaldia luzatzeko gai diren jarduerak aurreikusi dituzte: ekitaldiak, erakusketak, tailerrak, erakustaldiak, dastatzeak, bisita gidatuak eta abar.



9 azoka eta jarduera osagarri

Hain zuzen ere, tradizioa eta ohiturak, baserria, bertako jendea, paisaia, ganadua eta produktuak berak dira hainbat ekitaldiren oinarrian daudenak, bisitariei egiten dakiten guztia eta antzinako herentzia erakusteko. Guztien izendatzaile komuna tokiko nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerarekin lotura zuzena dutela da; eta, gainera, kasu batzuetan, Plazaola-Mendialdeko turismo-jardueraren baliabideak barne hartzen dituzte, lehen sektoreak turismoarekin duen lotura gero eta handiagoa baita (ustategietara bisitak, dastatzeak, museoak eta interpretazio-zentroak, merkataritza, etab.).

Horrek guztiak bisitarientzat duen erakargarritasunaz jabetuta, 2024rako aurreikusitako **9 merkatuetako** bakoitza beste hainbeste **ekitaldi paraleloekin** lotzen duen egutegi bat proposatzen da, askotariko gaiekin:

- Apirilak 21: Arribe (Araitz) + Artzaien usadioa
- Maiatzak 12: Gorriti (Larraun) + latxa arrazan hazteko aharien III. Enkante Nazionala
- Ekainak 8: Goizueta + Talo Eguna
- Ekainak 30: Latasa (Imotz) + IX. Senden Eguna
- Irailak 1: Lekunberri + Nekazal eguna
- Irailak 8: Leitza + XVIII. Talo eguna
- Urriak 13: Areso + Erakusketa "Aresoko baserriak".
- Azaroak 3: Jauntsarats (Basaburua) + Gaztain eguna
- Abenduak 1: Betelu + udalerriko adinekoei omenaldia

Hala, kasu batzuetan, merkatuak bat egiten du jada finkatuta eta aintzatetsita dauden jarduerekin (**Leitzako XVIII. Talo Egunarekin, Lekunberriko Nekazal Azokarekin, Imotzeko IX. Bidezidorren Egunarekin edo Larraungo Aharien III. Enkante Nazionalarekin**); eta, beste batzuetan, sortu berri diren jarduera/ekitaldiekin, hala nola **Jauntsaratseko Gaztain Egunarekin, Goizuetako Talo Egunarekin, Araitzeko Artzainen Ohiturekin, Aresoko baserrieekin edo Beteluko adinekoei egindako omenaldiarekin**.

Guztiak **igandean** izango dira, **11:00etatik 14:30era**, Goizuetan izan ezik, larunbatean izango baita.



Ekitaldia antolatzen **Mendialdeko 10 udalek parte hartzen dute** (Araitz, Arano, Areso, Basaburua, Betelu, Imotz, Goizueta, Larraun, Leitzza eta Lekunberri), **Cederna Garalur** eta **Plazaola Partzuergo Turistikoaren** koordinazio teknikoarekin, eta Mendialdeko baserritarren elkartearen (**HABELARTE**) eta tokiko kontsumo taldeen (**Araizko Zaporeak, LeitzEKO eta Bertatik Bertara Dinamika**) laguntzarekin.

Beste edizio batzuetan bezala, komunikazio- eta hedapen-ekintzak, batez ere, Plazaolako Turismo Partzuergoari dagozkio (ekintza horiek **Turismoko Zuzendaritza Nagusiaren** laguntza dute), eta Mendialdeko turismo- eta merkataritza-jarduerari lotutako hainbat agente eta establezimendu ere inplikatzen dira.

Artzaien usadioa Araitzen

Araitz udalerriak urteak daramatza nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak ekonomian, paisaian, kulturen eta tradizioetan duen arrastoa eta garrantzia ikus-tearen aldeko apustua egiten. Helburu horrekin, 2017an "Araizko Zaporeak" ekimena sortu zen, eta harrezkero hainbat ekintza egin dira haraneko ondare etnografikoa, historikoa eta kulturala berreskuratzeko, besteak beste.

Malloetako larreetatik Araitzeko baserrietara belarra jaistea ahalbidetzen zuen kable-sistema zaharra berreskuratzea ekintza ezagun eta berezietako bat da, baina ibarreko tradizioa eta artzaintza-ohiturak ezagutza- eta kontakizun-iturri bikainak dira.

Oraingo honetan, Mendialdeko merkatu ibiltaria dela eta, **ardien kalparra mozteko antzinako modua**, baita lortutako artiletik haria nola egiten den ere erakutsiko da. 12:00etatik aurrera izango da erakustaldia, Arribeko plazan. Bitartean, goiz osoan zehar, 21 artisau postuk euren produkturik onenak eskainiko dituzte.

Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen du

Lekunberrin, 2024ko apirilaren 12an